

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak Julio Caro Baroja, Javier Itúrbide eta Koldo Azkunereren liburuak eramanen ditu Durangoko Azokara

Axularren "Gero" klasikoa aztertzen duen Blanca Urgellen lana ere Nafarroaren erakusleihoan izanen da

Miércoles, 02 de diciembre de 2015

Nafarroako Gobernuak bost argitalpen hautatu ditu heldu den ostiraletik aitzinera [Durangoko Azokan](#) izanen duen erakusleihoan lehentasunez erakusteko:

- Javier Iturbideren "[Cuando las cosas hablan. La historia contada por cincuenta objetos de Navarra](#)".
- Koldo Azkunereren "[Garatea](#)", 2014ean Nafarroako Gobernuaren literatura sustatzeko konkurtsoaren sariduna.
- Axularren "Gero" klasikoa aztertzen duen [Blanca Urgellen lana](#).
- Julio Caro Barojari buruzko bi lan: Matias Mugicaren "[Con letra aguda y fina. Navarra en los textos de Julio Caro Baroja](#)"; eta hainbat egile dituen "[Nafarroa Julio Caro Barojaren begietan](#)".

Horrez gain, Nafarroako Gobernuak ere areto nagusiko "Gogoetaren plazan" parte-hartuko du. Hitzordua heldu den igandean, arratseko seietan, izanen da, "Etxea: kultur politika eta eragiletza" mahai-inguruan, eta Nafarroako Gobernuko ordezkaria Kultur Ekintza Zerbitzuaren zuzendari Dori Lopez Jurio izanen da. Solasaldian honakoek ere parte hartuko dute: Maialen Beloki (Zinemaldia), Xabier Monasterio (Kafe Antzokia) eta Izaro Iregi (Okela Sormen Lantegia).

Durangoko Azokak ostiral honetan irekiko ditu bere ateak, Gerediaga Elkartek antolatuta. Aurten 50. urteurrena ospatzen du eta erakunde publiko hauen laguntza izanen du: Kultura Ministeritza, Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritza, EAEko hiru foru aldundiak eta Durangoko Udala.

Hamabortz urte ziren Nafarroako Gobernuak Durangoko Azokan, euskal kulturaren zita garrantzitsuenatzat jotzen dena, parte hartu zuen azkenekoz.